



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-06-26ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko ekainaren hogeita seian, arratsaldeko 16:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Itziar Arkonada Lizarraga andrea, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Inork ere ez.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratua baita.

**LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.**

2009ko apirilaren hogeita bederatziko ohizko saioaren eta 2009ko maiatzaren 27ko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hauek onartzea.

**BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-06-09ko 22/2009 Dekretua: Bake Epaile eta Ordezkoaren hautapen prozesua ireki eta GAOra iragarkia bildatzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

**HIRUGARRENGO GAIA
2009 URTEKO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA.**

Alkateak, 2009 urteko ekitaldirako aurrekontu orokorra aurkezten du eta aurrekontua gauzatzeko udal araudia.

**EKONOMI ETA FINANTZA TXOSTENA
2009ko Aurrekontua**



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak jasotakoaren arabera, Udal honetako Idazkari-kontuhartzaileak, aipatu ekitaldirako aztertzen ari diren aurrekontuari dagokionez, txosten hau egin du:

TXOSTENA

- 1.- Hemen aztertzen ari garen aurrekontuko diru-sarreraren aurreikuspenak zehazteko, oinarri hauek erabili dira:
 - Espero diren zerga unitate berriak, eta katastroko balioen gehikuntza, tributu propioei dagokienez (1 kapitulua).
 - Borondatezko zergetan espero diren zergagai kopurua (1 eta 2 kapituluak).
 - Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen tasak, tarifak eta kuotak gehitzeko hartutako erabakiak (1,2 eta 3 kapituluak).
 - Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren partaidetzan eta Itundu gabeko Zergen partaidetzan espero diren gehikuntzak (4 kapitulua).
 - Eskualdaketa eta diru-laguntza arrunten nahiz kapitalezkoen zenbateko ezaguna edo ustezkoa (4. kapitulua).
 - Ondare sarrerak (5 kapitulua).

- 2.- Aztertzen ari diren aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarriko dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaerako zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependentsienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisuetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.

- 3.- Aurrekontuan jasotako diru-sarrerak aurrekontuan bertan aurreikusitako gastuen kreditu guztiak ordaintzeko ematen du eta, hortaz, esan dezakegu Aurrekontuak ez duela hasierako defizitirik.

Idazkari-kontuhartzailea

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukina

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, honako hauek osatuko dute:

- a) Udalaren Aurrekontua, **1.026.565,44** euroko sarrerak dituena.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

b) Udalaren Aurrekontua, **1.026.565,44** euroko gastuak dituen

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

2009ko ekitaldi ekonomikoan Beizamako Udalak abalake eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren % 5eko mugapean.

3. artikulua.- Zorpetze muga

Kontuan hartu beharko 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

1.- Kredituen lotespen juridikoen mailak

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

* Kapituluak, pertsonalaren gastuetan, ondasun arrunt eta zerbitzuetan, finantza gastuetan transferentzi arruntetan, inbertsio errealetan eta finantza pasiboetan.

5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak ¹

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein programa funtzionaletan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Lehendakari izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada.

6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak

1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

2.- *Obligazioaren onarpena*

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisuetatik sortutako obligazioak.

3.- *Ordainketaren agindua*

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

4.- *Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea*

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke.

Aurreko guztia kontuan hartuz eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 FORU ARAUAK, abenduaren 19koak, xedatutakoari jarraituz, Beizamako udalbatzarkideek, aho batez, ondorengo onartu dute:

Lehenik.- 2009ko ekitaldirako Aurrekontua orokorrari hasierako onarpena ematea, honako aurreikuspen hauetan xehekatuta dagoena:

SARRERAK

1. Kapituluak: -Zuzeneko zergak:	14.823,50
2. Kapituluak: -Zeharkako zergak:	8.000,00
3. Kapituluak: -Tasak eta bestelako sarrerak	20.345,00
4. Kapituluak: -Transferentzia arruntak	239.401,00
5. Kapituluak: Ondarezko sarrerak:	9.300,00
6. Kapituluak: Inbertsio errealak inorenganatzea:	12.600,00
7. Kapituluak: Kapital transferentziak:	522.095,94
9. Kapituluak: Pasibo finantziarioak:	200.000,00

Guztira **1.026.565,44**



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GASTUAK

1. Kapituluak:-Pertsonal-gastuak:	109.635,73
2. Kapituluak:-Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan:	145.150,00
3. Kapituluak: Finantza-gastuak:	3.200,00
4. Kapituluak:-Transferentzia arruntak	32.018,59
6. Kapituluak:- Inbertsio errealak	536.561,12
9. Kapituluak: Pasibo finantziarioak:	200.000,00

Guztira **1.026.565,44**

Bigarrenik.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 15.3 artikuluan ezarritakoa betez, aurrekontu orokorraren kapitulu bakoitza laburturik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hau da, Aurrekontu orokorraren hasierako onarpena jendaurreko erakustaldian hamabost egunean jartzea, onespren horren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta udaletxeko iragarki-taulan agerraraziz.

Epealdi horretan, interesdunek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Erreklamazioak aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Aurrekontua behin betiko onetsita kapituluka laburtuta argitaratuko da G.A.O.n. eta horren kopia bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, berak beste administrazio eskudunei bidal diezaien.

LAUGARRENGO GAIA
BEIZAMAKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILA
ORGANIKOA ONARTZEA

Aurrekontuarekin batera, Beizamako Udaleko lanpostu zerrenda eta plantila organikoa aurkezten dira:

KARRERAKO FUNTZIONARIEI GORDETA KO PLAZAK
IZAERA NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA

— *Plazaren izena: Idazkari-Kontuhartzailea.*

Plaza Kop.: 1.

Taldea.: A 1.

Egoera: B (Elkartua %50).

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

– *Plazaren izena:* Administraria.
Plaza Kop.: 1.
Taldea: C 1.
Egoera: H (behin behingoz hornitua)
Oharra: Lan saioa %100.

PERTSONAL LABORALENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

– *Plazaren izena:* Eginkizun anitzeko langilea.
Plaza Kop.: 1.
Taldea : E
Egoera: H (behin behingoz hornitua)
Oharrak: Lan saioa %50.

2009 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Izena	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Eskatutako Titulazioa	Hizkuntza Eskakizuna	Derrigorrez. Data	Ordua Maila
-------	----------------	--------	--------	------------	------	-----------------------	----------------------	-------------------	-------------

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETA KO LANPOSTUAK

Idazkari-Kontuhartzailea	L	A 1	GN	IK	3	2	4	1992-06-30	
Administraria	L-O	C 1	O	AL	-	4	3	2008/04/30	

LAN HITZARMENA DUTEN LANGILEEI GORDETA KO LANPOSTUAK

Eginkizun anitzeko langilea	L-O	E	B	Z	-	5, B1	1	2008/04/30	
-----------------------------	-----	---	---	---	---	-------	---	------------	--

1.- Hornitzeko era:

L: Lehiaketa
L-O: Lehiaketa-Oposaketa

2.- Eskala:

GN. Gaikuntza Nazionala
O: Administrazio Orokorra
B: Berezia

3.- Azpieskala

IK: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.
AL: Administari laguntzailea



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Z: Zerbitzuak

4.- Eskatutako titulazioa:

2: Zuzenbidean, Soziologian, Zientzia politiko eta Enpresa zientzitan, Enpresa administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian eta Zientzia Aktuarial eta finantzieroetan lizentziatua izatea

4: Batxilergoa, FP II edo baliokidea

5: Eskola ziurtagiria

B1: Gidatzeko baimena (B1 motakoa)

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- 2009ko ekitaldirako lanpostuen zerrenda eta plantila organikoa onartzea.

Bigarrena.- Toki Erregimenaren alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 E.D.L.ren 127 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedaturikoaren arabera, 2009 urterako Beizamako Udalaren Plantila Organikoa eta Lan-Postuen Zerrenda argitaratzen dira

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENGO GAIA
SAN LORENTZO ERMITAREN BERRIZTAPEN LANEN KONTRATUA
ESLEITZEA.

Udal honek, 2009ko maiatzaren 27an egindako ohizko osoko bilkuran onartu zuen, besten artean, Beizamako San Lorentzo ermitaren berriztapen lanak kontratatzeko espedienteari hasiera ematea onartzea, bai eta jardunbidea, esleipena eta lizitaziorako oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

Ikusirik, aurkeztutako proposamenen dokumentazioa aztertu ondoren, proposamenekin aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, hainbat akats nabaritu direla.

Kontuan hartuz aipatutakoak akats zuzengarriak direla, Udalbatzak bertan daudenek



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- 3 egun balioduneko epea ematea eskaintzen egileei, baldintzetan jaso ahala, falta diren dokumentuak proposamenera gehitzeko.

Bigarrena.- Erabaki honen berri eskaintzagileei jakinaraztea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

SEIGARRENGO GAIA

BEIZAMAKO OSTATU ZAHARREKO KONTRATUAREN AMAIERA.

Beizamako Udalbatzak 2007ko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen erabilera eta ustiapen eskubidea arautzen duten baldintzen plegua onartu zuen. Ondoren, 2007ko abuztuaren 1ean ospatutako Osoko Bilkuran esleipena egitea erabaki zen, esleipenduna Asun Galarraga Lasa andrea izan zelarik eta dagokion kontratua 2007ko irailaren 7an izenpetu zuten Beizamako Alkateak eta Asun Galarraga Lasa andreak, hots, esleipendunak.

2009ko urtarrilaren 15ean aurkeztutako idazkian, esleipendunak emakidari uko egin eta kontratua amaitzeko eskaera aurkeztu zuen, lizitazioa berri bat burutu artean ustiapenarekin aurrera jarraituko zuela adieraziz.

Lizitazio berriaren prozesua garatu ondoren, Beizamako Udalbatzak 2009ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran erabaki zuen, besteen artean, Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidearen behin-behineko esleipena Gorka Igartua eta Markel Sanzi egitea.

Behin betiko esleipena erabaki aurretik, aldiz, Asun Galarraga Lasa andrearekin sinatutako kontratuari amaiera eman behar zaio.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako Udalak eta Asun Galarraga Lasa andreak, Beizamako ostatu zaharra emakidaz kudeatzeko duten hitzarmenari amaiera ematea.

Bigarrena.- Onarturiko baldintza orriaren 3. eta 16. klausuletan xedaturikoa kontuan hartuz, Beizamako Udalak bereganatuko du emakidadunak jarritako behin betiko bermea.

Hirugarrena.- Ikusirik izenpeturiko kontratuaren arabera emakidadunak kontratuari uko eginez gero, epea betetzeko gelditzen den urte bakoitzeko hilabete bateko errentaren kopuruaz indemnizatu behar duela Udala, eta kontratua hausteko eskaera baldintza pleguan



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ezarritako hilabeteko epea egin dela kontuan harturik, Udalari, indemnizazio gisa, hilabete bateko errenta ordainaraztea.

Laugarrena.- Asun Galarraga Lasa andreari honako erabakien berri ematea.

ZAZPIGARRENGO GAIA
BEIZAMAKO OSTATU ZAHARREKO KONTRATUAREN BEHIN BETIKO
ESLEIPENA.

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditzea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Lizitazio-iragarkia 2009ko martxoaren 4an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lehiakidek beren proposamenak aurkez zituzten. Inolako proposamenik jaso ezenez, lizitazio hau hutsik deklaratu zuen 2009ko apirilaren 29n egindako udalbatzak.

Ondoren, Beizamako udalerrarentzat gisa honetako azpiegitura bat edukitzeak suposatzen duenaren jakitun, Udalak, zegokion jardunbide negoziatuari hasiera eman zion, eta horretaz gain, interesdun potentzialen bila hainbat kontaktu egin zituen inguruko ostalaritza eta sukaldaritza eskolarekin batetik eta inguruko egunkarietan (hitza) prozesuaren berri emanez. Guzti honek bere fruitua eman zuen, hiru interesdun azaldu ziren eta, Udalak, prozedura irekian erabilitako baldintza orrietan jasotako klausula berdinetan oinarrituz proposamenak aurkezteko epea eman zien, azken eguna 2009ko maiatzaren 22a izango zelarik hain zuzen ere.

2009ko maiatzaren 27an egindako plenoan, udal korporazioak, aurkeztutako proposamenak aztertu eta baloratu ondoren, Gorka Igartua eta Markel Sanzi esleitu zien kontratua behin behineko izaeraz.

Ikusirik oraindik eskatutako dokumentazioa ekartzear daudela lizitatuzaileak bai eta behin betiko bermea eratu ez dutela oraindik.

Kontuan hartuz, 2009ko maiatzaren 27an ospatutako Osoko Bilkurak gai hau presazkoa eta premiazkoa zela adostasunez adierazi zuela.

Ikusirik, behin behineko esleipenaren aurka inongo errekurtsorik azaldu ez dela.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurreko guztia kontuan hartuz eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007ko Legean xedatutakoaren arabera, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako “ostatu zaharra” taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea Gorka Igartua eta Markel Sanzi esleitzea, behin betiko izaeraz.

Bigarrena.- Errekeritzea erabaki honen berri izan ondoren, 10 eguneko epea ematea baldintza zehatzen agirian jasotako dokumentazio osoa Udalean aurkezteko, dagokion erantzukizun zibileko aseguruia eratzeko eta behin betiko bermea osatzeko.

Hirugarrena.- Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua eta beharrezkoak diren izapideak aurrera eramateko sinatu beharko diren dokumentuak sinatzeko.

Laugarrena.- Esleipendunari dagozkion iragarki gastuak ordainaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 20:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.